

# MERKATU SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak hortzak erabat garbi izatea nahi dute. Hortzak garbitzeko tresna normal bat ez da nahikoa izaten hortzetan gelditzen den zikintasun guztia garbitzeko. Beraz guk produktu hau sortu dugu garbitasun handiagoa lortzeko.

Bezero guztien artean segmentu edo talde desberdinak bereizten ditugu. Hasteko, ume txikiak daude, umeen hortzak garatu gabeak dituzte eta horren ondorioz, gure produktua 10 urtetik gorako haurrei zuzenduta dago. Beraz, produktua hau erabili dezaketenez oso praktikoa izango da eta umeek motibatuago garbituko dituzte hortzak.

Bestalde, mugikortasun murriztua duten pertsonak daude. Jende honek gaixotasunak edo arazoak direla eta beste pertsona batzuen laguntza behar izaten dute hortzak garbitzeko. Gure produktuaren bidez, beraien kabuz hortzak garbitu ahal izango dute beste pertsona batzuen menpe egon beharrean.

Talde guzti hauez gain, beste edozein pertsonarentzat ere baliagarria izan daiteke, garraiatzeko eta erabiltzeko duen erraztasunagatik batez ere.